



ALKOHOL GEHIEGIKERIAREN KONTRAKO UMOREZKO PEGATINA 2023

Festetan alkohol gehiegi edatearen kontrako umorezko pegatinaren lehiaketa

Eibarko Udaleko Gizarte Zerbitzuen Batzordeak, Kultura sailarekin batera, alkohol gehiegiakeriaren kontrako umorezko pegatina bat egiteko lehiaketarako deialdia egiten du, oinarri hauen arabera:

Gaia: alkohol gehiegi ez edatea; alkohola neurrian edatea komeni dela gogoratzea, hiriko festa guztietan.

Idatzia: norberaren aukeran, euskaraz.

Kolorea: nahi dena.

Neurriak: 7x7 cm, borobila, lauki itxurakoa...

Lan guztiek jatorrizkoak izan beharko dute. Ezin izanen da hirugarren pertsonen lanik erabili, ez osorik ez zati batean.

Lanak aurkezteko epea 2023ko apirilaren 26tik maiatzaren 12ra izango da.

Lehiaketan izena emateko eta pegatina aurkezteko bideak:

- **Elektronikoki:** lehiaketan izena emateko formulario bat bete beharko da elektronikoki ondorengo estekan:

<https://formularioak.eibar.eus/eu/pegatina2023>

Formulario elektronikoa betetzeko ez da inolako sinadura elektronikorik behar, ezta ere erabiltzaile eta pasahitzik.

Pegatina formatu digitalean erantsi beharko da.

Ez dira onartuko elektronikoa ez den beste bide batzuetatik jasotako lanak (posta elektronikoa, posta arrunta...).

Pegatinak lemapean aurkeztuko dira. Elektronikoki izena ematerako orduan egileak ondorengo datuak erraztu beharko ditu:

- Egilearen izen-abizenak.
- Egilearen NAN, AIZ... (14 urtetik gorakoentzat derrigorrezkoa).
- Egilearen bizilekua.
- Egilearen telefonoa.
- Egilearen e-maila.
- Pegatinaren lema (euskeraz).

Izena emateko formularioa elektronikoki bete ondoren, pegatina erantsiko da.

Saria: 200 euro pegatina irabazlearentzat.

Epaimahaiaren osaera eta hautaketa:

Pegatina irabazlearen hautaketa EIBARKO UDALEKO Gizarte Zerbitzuetako (adikzioak) eta Kulturako (Marrazketa Eskola) langileek osatutako epaimahaiak egingo du.

Epaimahaiaren erabakia 2023ko maia-tzaren 19an jakinaraziko da udalaren web orriaren bidez (www.eibar.eus).



Erabakia apelaezina izango da.

Lehiaketan irabazlerik ez egotea ere gerta liteke.

Epaimahaiak oinarri hauen interpretazioan eta aplikazioan sortzen den edozein zalantza argitu ahal izango du.

Epaimahaiak ez ditu onartuko konnotazio sexistak, xenofoboak, arrazistak, homofoboak edo pertsonen edo erakundeen kontrako iraingarriak diren lanak.

Pegatina saritua Udalaren esku geratuko da. Udalak, kartela argitara emateko eskubidea bere gain hartzen du.

Lehiaketan pegatina originalak aurkezten dituenak, oinarri hauek diotena ontzat ematen du.

INFORMAZIOA:

E-maila: gizartekintza@eibar.eus

Tfnoa: 943708440

Webgunea: www.eibar.eus